

IZEN JATORRAK

ERA JATORRERA NEKEZ BIHURTU

DITZAZKEGUN IZENAK

Lekuizenak, auzo, baserri, bide, erreka, iturri eta antzerakoak, publikoki adibidea eman beharrezko gertatzen diren horiek, erraza da letrero irarrien bidez berrirrekuperatzea eta gerora begira irauaraztea. Baina ez da hain erraza izaten aspaldi eremu bihurtu ziren tokietan neurri berakin jokatzeko eta horrek egiten nekez lortzea.

Holakoetan, kartografian behar bezala izendatzea litzake gauzarik egokiena eta bidezkoena. Zernahitarako erabilgarri izatez gainera, hor gelditzen bai da iraririk. Eta, oraingoz herriak nekez eskuratu badezake ere, nor daki beste batean toki hartan etxe, itxola, ur-hartze, edo beste edozergatik erabili beharra gertatzea: orduan, lehen jasoari esker lortuko genuke erabilera jatorra.

Adibidez: Remijio Mendiburuk Jaizkibel mendian 1963an eraiki zuen monumentoari esker ikasi nuen toki hura **Artola** zela. Bestalde, ibiliaz eta galdetuaz ikasi nuen Instituto Geográfico y Catastral-ak 1:50.000 eskaladun mapan, **Turrilla** ez dela behar den tokian jarria. Turrilla edo **Turrilla** hori Pasaia partean dela, Hondarribiaren mugan, eta Katastralean oker jarria zela, **Bioznar** deritzan tokian. Mapa berean, **Bioznar** agertzen da **Marla**-ren lekuan (**Marla** eta **Marla-baratza** bezala ezagutzen den tokia). **Capeluta** (**Kapeluta**) ordea, ongi dator.

Kapeluta, Kornuz baserrikoengandik ahoz jaso nenez, **Kapeleta** da. Baina, oraingo jende gazteak ez bata eta ez bestea, zeren "Malarranas" deitzen bai diote. Nik ez dakit noiztik eta zergatik, baina "Malarranas" entzuten diot euskaldun gazteriari ere. Florentino Porturen liburuan ere, 184. orrialdean, **Capeluta** bezala dator. Beraz, hara hor Katastralean eta Porturen monografian ongi irarria jendeak oker erabilia. Horrek erakusten digu, agian, mapetan jartzea bakarrik ez dela aski, eta inoiz mendi eta itsas-hegaleko bideetan iragarri beharra iduritzen zaigu, jendeak tokien berri jakin dezan.

Altzuerrota, orain "El Molino" entzute handiagoz sartzan ari dena, kanpiñ eta igeri egitera jende asko joaten denetik. Gainera, Guadalupea iritsi baino lehen, paretean idatzirik agertzen zaigu "El Molino". **Altzuerrota** zail egiten bazaie euskaraz ez dakitenei, besterik ezean zergatik ez jarri **Artzu** baserriaren izenaz gainera **Errota** soil soilik? Gorago non-nahi aurkitzen ditugu errotrariak toki izenak markatzen, eta horiei esker **Gastarrotz** eta **Erantzín**, adibidez, horrela ezagutzen ditu, beraien era jatorrez.

Iskiraputzu, hara beste izan bat galzorian, bere ordezt "Las Bañeras" sartzan hasi denetik. **Iskiraputzu** delako hau **Marla** eta **Sortxiki** edo **Txortxipi** deritzaian ze-

lai tarteko errekatxoa itsasoratzen den toki berean da, **Kapelu** kaskoepen. Eta, jakina, **Kapelu** delako hau ere ez dugu nahastu behar **Kapeluta**-rekin.

Errotrarriz bideak seinalatze hori oso egokia iduritzen zait. Batzutan ordea, tamalez, "Camino Forestal" baizik ez dugu irakurtzen. Nonbait, Udalean edo Diputazioan inor ez da arduratzen izenak jakitzen eta seinaleztat iragartzen. Horretara, hainbeste "Camino Forestal" aurkitzen ditugunez, Jaizkibel mendian, ez dugu jakiten nora garamatzen. Aurten bertan, Guadalupe-tik **Iskulín** aldera, Jaizkibelen gailurrik altuenaren azpikaldetik zehar bi pista berri ideki dituzte eta aukera ederra dugu **Allerru zeharra** izenez berbataiatzeko. Berbataiatzeko diot eta ez bataiatzeko, zeren Santa Barbara eta **Iskulín**petik San Endrikepera arteko guzia bait da **Allerru**; ez punta bera, Lezoarrek uste duten bezala, baizik puntatik beherako malda, izenak berak aditzera ematen duenez eta artzaiak diotenez.

Ezagutu zure herria, errespetatu izen jatorrak eta, arren, oroi **Kapeluta**, **Altzuerrota**, **Iskiraputzu** eta **Allerru zeharra** errekupeatzen. Zure herriko izen jatorrak dituzu eta bazter itzazuz "Malarranas", "El Molino", "Las Bañeras" eta gainerako erdal bataio berriak.

Juan San Martín

